

# Hitzaurrea

Xabier Etxaniz Erle

Euskararen arloko errektoreordea

Duela mende laurden bat UPV/EHUko euskara errektoreordetzaren laguntzaz unibertsitateko irakasle talde batek sortu zuen *Tantak* aldizkaria. Hezkuntza eta euskara ziren aldizkari hura sustatzeko arrazoia, eta, batik bat, Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Irakasle Eskoletako irakasle eta ikasleei zuzendutako argitalpena zen. 25 urte beranduago helburu berebereri erantzuten die aldizkariak web orrian ageri den bezala: «Sei hilabeterik behin argitaratzen da hezkuntzari buruzko aldizkari hau. Osorik euskaraz dago eta hezkuntzaren maila guztietako euskal hezitzaileei eskaintzen zaie bereziki, bai eta irakasleen heziketarako eskoletako ikasleei ere. Hezkuntza eta Pedagogiaren arazo orokorrez gain, Euskal Herriaren hizkuntz eta politika-itxuraketa bereziaren ikuspegi bereziak aztertzen dira: hezkuntzaren hizkuntz ereduak, elebitasuna, eskola-sare ezberdinak etabar.»

Eusebio Osa zenak izan zuen *Tantak* aldizkari honetan argitaraturiko lehen artikulua idaztearen ohorea. Bere doktorego tesiaren aurkezpen moduko bat izan zen lan hura eta argitalpenaren helburu zientifikoa ondo zehazten zuen. Aldizkariak hezkuntzaren inguruko ikerketaren leiho bat izan behar zuen, batez ere hemengo ikerketarena, baina kanpoan egiten denari uko egin barik. Horrela, lehen alean bertan kanpoko ikerlari baten ekarpena aurki dezakegu; izan ere, zientziak ez du mugarik, jakintzak ere ez, eta leihoak, aldizkariak, balio izan du, balio du, hemengo ikerketaren berri zabaltzeko eta baita kanpokoaren jakitun izan gaitezen hemen.

Urteak pasa dira, artikulua eta aldizkari aleak metatu zaizkigu, ehunka lan plazaratu dira eta ugari izan dira bertako nahiz kanpokoaren ekarpenak. *Tantak* sei hilero plazaratu da ikerlariak eta artikulugileak egindako lanari esker, baina baita urte hauetan guztietan ezkutuan, irakurle lanetan, erredakzio batzordean... egon direnen esfortzuari esker. Eta horien guztien lanaren ondorioz aurrera egin dugu, ekarpena garrantzitsua da, eta horren adibide garbia da ale honetan ageri den artikulua guztien bilketa. Mota, estilo, gai eta ikuspuntu ezberdinetako lanak, gure hezkuntzan aurre egin dezagun, euskaraz aurrera jarrai dezagun eginikoak.

Bidea aberatsa eta emankorra izan da, askotan gutxi eskertutako lanaren ondorioz eginikoa, eta alde horretatik aukera hau aprobetxatu nahi nuke aldizkari honen biziraupenean parte hartu duten guztiei eskerrak emateko.

Bide aberatsa izan da, asko egin dugu, baina asko dugu oraindik egiteko, eta langintza horretan denon ekarpena beharko dugu, denok lan egin beharko dugu hezkuntzan, euskararen normalizazioan, geure garapenean aurrera egin dezagun; eta lan horretan Euskara errektoreordetza ondoan izango duzue, duela mende laurden bat bezala.